



**ARANTZAZU LILI SALAZAR  
ANDREAK, LAUDIO IBAR  
NOBLEAREN UDALEKO  
IDAZKARIAK**

**D. ARANTZAZU LILI SALAZAR,  
SECRETARIA DEL AYUNTAMIEN-  
TO DEL NOBLE VALLE DE  
LLODIO**

**ZIURTATUA:** Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko apirilaren 7 eguneko ohiko bileran, Jon Iñaki Urkixo Orueta, Jon Ander Altube Lazkano, Maider Basterra Ibarretxe, Alvaro Barrios Medina eta Nerea Gonzalez Garcia jaun-andreek horren aldeko botoa emanda, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuela:

**CERTIFICO:** Que por la Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento en sesión ordinaria celebrada el día 7 de abril de 2017, con los votos a favor de Jon Iñaki Urkixo Orueta, Jon Ander Altube Lazkano, Maider Basterra Ibarretxe, Álvaro Barrios Medina y Nerea González García, se adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

**Onestea 2017ko sanrokeak iragartzeko kartelaren XXXVIII. lehiaketaren oinarriak Erref.: J-17/ 6.8**

**Aprobación Bases del XXXVIII Concurso Cartel anunciador Fiestas de San Roque año 2017. Ref: J-17/ 6.8**

Prestatu egin dira 2017ko sanrokeetako jaiak iragartzeko kartelen XXXVIII. lehiaketaren oinarriak.

Habiéndose confeccionado las Bases del XXXVIII Concurso de Carteles para anuncio de las Fiestas de San Roque año 2017.

Ikusi egin da 2017ko martxoaren 30ean emandako proposamen teknikoa.

Vista propuesta técnica de fecha 30.03.2017

Ikusirik 2017.03.30eko Idazkariaren txostena

Visto informe de Secretaria fecha 30.03.2017

Ikusi egin da kontu-hartzaileak 2017ko apirilaren 3an emandako txostena (RC 2803).

Visto informe de Intervención fecha 3.04.2017 (RC 2803)

Aurreko guztia kontuan hartuta, Jai Azpiarloko Zinegotzi ordezkari laguntzailearen bidez, Alkate-udalburuak proposatuta jarraituz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu du:

Por todo lo anterior, a propuesta del Alcalde-presidente a través de la Concejala Delegada Adjunta Subarea de Festejos, la Junta de Gobierno Local ha adoptado el siguiente acuerdo:

**LEHENENGOA.-** Gainditzea kontu-hartzaileak 2017ko apirilaren 3an emandako txostenean ipini dituen eragozpenak.

**PRIMERO.-** Salvar los reparos interpuestos por la Interventora Municipal en su informe de fecha 3.04.2017.

Aurrekoaren motibazioa da idazkari nagusiak 2017ko martxoaren 30ean emandako txostenean adierazten den eta azaroaren 17ko 38/2003 Lageak, Diru-laguntzen Lege Orokorrak.

Motiva lo anterior, lo recogido en el informe emitido por la Secretaria con fecha 30 de marzo de 2017 así como la Ley General de Subvenciones 38/2003 del 17 de noviembre.



**BIGARRENA.-** Onestea 2017ko sanrokeetako jaiak iragartzeko kartelen XXXVIII. lehiaketaren oinarriak.

**SEGUNDO.-** Aprobar las Bases del XXXVIII Concurso de Carteles para anuncio de las Fiestas de San Roque año 2017.

**HIRUGARRENA.-** Kartelak aurkezteko epea **2017ko maiatzaren 22an bukatuko da, 14:00etan**; kartelak Kultura, Kirol eta Jai Arloan aurkeztu behar dira.

**TERCERO.-** El plazo para la presentación de carteles finaliza el día **22 de mayo de 2017 a las 14:00 horas**, debiendo ser entregados en el Área de Cultura, Deportes y Festejos.

**LAUGARRENA.-** Onestea 1.200 euroko gastua, aurreikusi den sari bakarrerako. Gastua 2017ko aurrekontuan kargatuko da, 06-3381-226.06 partidan.

**CUARTO.-** Aprobar el gasto de 1.200 euros destinado al único premio establecido. El gasto se imputará al Presupuesto 2017, partida 06-3381-226.06.

**BOSGARRENA.-** Onestea 60 euroko gastua, epaimahaiko kideei oparitxo bat egiteko. Gastua 2017ko aurrekontuan kargatuko da, 06-3381-226.06 partidan.

**QUINTO.-** Aprobar el gasto de 60 euros destinados para detalle a los miembros del Jurado. El gasto se imputará al Presupuesto 2017, partida 06-3381-226.06.

**SEIGARRENA.-** Deialdiaren oinarriak, instituzioetara, komunikabideetara eta ZUIN aldizkarira igortzea, publizitatea egiteko.

**SEXTO.-** Remitir las Bases de convocatoria a las Instituciones, medios de comunicación y ZUIN para dar la mayor publicidad.

**ZAZPIGARRENA.-** Aditzera ematea erabaki hau kontu-hartzaileari.

**SEPTIMO.-** Dar traslado del presente acuerdo a Intervención.

Hala jasota gera dadin eta dagokion lekuan beharrezko ondorioak eragin ditzan, honako ziurtagiri hau eman dut. Laudion, bi mila eta hamazazpiko apirilaren zazpian.

Y para que así conste y surta los debidos efectos donde proceda, se expide la presente certificación en Llodio a siete de abril de dos mil diecisiete.

O.E. / Vº Bº

Alkate-udalburua / El Alcalde-Presidente

Idazkaria / La Secretaria

-Jon Iñaki Urkixo Orueta-

-Arantzazu Lili Salazar-



## **2017 SAN ROKE JAIK IRAGARTZEKO XXXVIII. KARTEL LEHIAKETA**

**Errf. J.17/ 6.8**

### **OINARRIAK**

1.a Edozein pertsonak, adinaren mugarik gabe, parte har dezake sariketa honetan, zein nahi izanik ere nazionalitatea edo bizilekua duen egoitza.

2.a Lanak izan behar dira argitaragabeak eta alde zurretik beste edozein lehiaketan saritu gabekoak.

3.a Lanak prestatu eta gauzatzeko joera guztiak eta zein nahi bitarteko tekniko erabili ahal izango da (marrazkia, pintura, argazkia, collage edo itsatsi-bilduma, e.a.).

4.a Artista bakoitzak nahi beste lan aurkez dezake Lehiaketara, baina izenburu ezberdinekin.

5.a Ez da onartuko marrazki edo mezu sexista edota xenofoboak dauzkan kartelik.

6.a Kartelaren neurria izan behar da hauxe: 50 x 70 cm.

7.a Kartelean sartu behar diren testuak hauek dira:

**SANROKEAK 2017  
LAUDIO JAIETAN  
ABUZTUAK 15, 16, 17, 23, 24, 25, 26, eta 27**

Halaber, Laudioko ezkutu edo armari ofiziala sartu behar da, Kultura, Kirolak eta Jaietako Arloko udal bulegoetan eskainiko den ereduaren arabera.

8.a Kartelak aurkeztu behar dira sinatu gabe, izenpetu barik, euskarri zurrun eta gogorrean edo PDF formatu digitalean, atzealdean izenburu goitizen bat dutela. Kasu bietan, entregatuko da gutun-azal itxia, barruan sartuta datu hauek: egilearen izena, bi abizenak, NAN, helbidea eta telefonoa. Gutun-azalaren kanpo aldean adieraziko da zein den aurkezpen Lehiaketa eta izenburu goitizena.

Aldi berean, datu pertsonalak adieraziko dituen gutun-azalaren barruan erantsi eta txertatu behar da deialdi honetako 2. oinarria betetzeari buruzko zinpeko aitorpena, hau da, lana argitaratu gabea eta beste Lehiaketa batzuetan saritu gabea izatearen aitorpena.

9.a Originalak entregatzeko epea amaituko da **2017ko maiatzaren 22 eguneko 14:00etan**. Kasua bada posta edo garraio bidezko bidali egin dela, kartelen fakturazioa egiaztatzen duen taloi-agiriaren aurkezpenak izango du kartelen entrega-balioa, beti ere, ongi ulerturik, edozein



gauzarengatik, nahiz eta derrigorrekoa ala larrialdikoa izan, kartel irabazlea hautatzeko egunerako horiek ez badira jaso, lehiaketatik kanporatuztat joko direla.

Hala lanak nola gutun-azalak entregatu edo bidali behar dira Kultura, Kirolak eta Jaietako Arloran.

10.a Aurkeztutako lan bakoitzeko jaso-agiri bat emango da eta hori aurkeztu beharko da saritu gabeko kartelak erretiratzeko. Lehiaketaren ebazpen egunetik 30 egun natural pasa badira saritu gabeko kartelak erretiratu gabe, ulertuko da interesatuek eskubide horri uko egin diotela eta aipatu diren kartelak desegino dira.

11.a Sari bakarra emango da 1.200 eurokoa.

Saria irabazten duenari, sarien gaineko atxikipenei buruz indarrean dagoen arautegian ebatzitako atxikipenak aplikatuko zaizkio.

12.a Kartel saritua San Roke 2017 Jaiak iragartzeko gai iragarletzat erabiliko da, hala nola jai egitarauko aurre aldean agertuko da edo Laudio Udal honek kontratuko dituen aldizkari edo egunkarietako iragarkietan. Udalak ez du zertan erabili beharrik derrigor egilearen izena; hala egileak ezin izango dio kalte-galerarik eskatu.

13.a Lehiaketa honetan parte hartzeak berarekin batera darama bertan zehaztutako baldintza guztiak onartzea eta beren beregi eta espresuki horien mende geratzea.

14.a Deialdi honetan sor edo planteatzea daitezkeen arazo guztiak ebazpena uko Laudio udaleko Kultura, Kirolak eta Jaietako Arloaren eskumen eskusiboa da.

15.a Lehiaketa honen oinarriak jakinaraziko dira ZUIN Udal Informazio Orrian, udal web atarian eta komunikabideen bitartez.

## **KARTEL IRABAZLEA AUKERATZEKO PROZEDURA**

16.a Aukeratzeko prozedurak bi fase izango ditu:

1. Fasea:

Epaimahai teknikoak bigarren fasera pasako diren lanak aukeratuko ditu.

2. Fasea: “Bozken” fasea izenekoan, gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

1-Epaimahai teknikoaren bozkak: 50 puntu

2-Herriarren bozkak: 50 puntu, hala bozka papereko nola udalaren web atari bidez

**LEHENEN FASEA**

17.a EPAIMAHAI TEKNIKOAK LANAK ALDEZ AURRETIK AUKERATZEA Laudio Udalak, Herriko Etxeko Udal Iragarkien Taulan erakutsiko den Alkate-udalburutzako Dekretu bidez izendatuko du Epaimahai Teknikoa. Kide izango dira lehiaketaren objektuarekin zerikusia duten 3 pertsona. Epaimahai-burua alkatea bera izango da edo ordezkotza lagatzen dion Zinegotzia; berdinketa kasuan kalitatezko bozka edukiko du. Idazkaria, Kultura Koordinatzailea edo ordezkotza lagatzen dion Teknikaria izango da, hitz egiteko eskumenaz baina bozkarik emateko eskubiderik gabe.

Epaimahai horrek, epe barruan aurkeztutako lanak aztertu, delibero eta gogoeta egin ostean, kalitate, originalitate eta indarrean dauden legeak betetzearen irizpideak ezarriz, bigarren fasera (epaimahai teknikoaren eta herritarren botaziora) pasako diren lanak aukeratuko ditu. Aukeraketa sistema izango da bozkatuta “lanez lan”, erantzunez “bai” ala “ez” galdera honi: pasa behar al du botazio fasera? Lehiaketa honetako bigarren fasera pasatu ahal izateko epaimahaiko kideen aldeko edo baieztoko botoen %40 baino gehiago lortu behar du lanak.

Epaimahaiak ez badu lanik bat bera ere ez aukeratzeko, lehiaketa hutsik joko da. Lan bakarra aukeratzeko badu, lan horixe izango da irabazlea, botaziora jo beharrik gabe.

**BIGARREN FASEA:**

18.a EPAIMAHAI TEKNIKOAREN BOKETA BOTAZIOA (50 puntu). Epaimahaikide bakoitzak 12,5 puntu izango ditu, egoki irizten dion moduan banatzeko aukeratutako edozein lanen artean. Epaimahaiak hartutako erabakia horrexetarako idatzitako aktan jasoko da, non lan bakoitzak lortu dituen puntuak azalduko diren.

**19.a HERRITARREN BOTAZIOA (50 puntu).**

**BOTO PAPER BIDEZKO BOTAZIOA.** Epaimahai teknikoak lehen fasean hautatutako lanak Laudioko Kultura Etxean jendaurrean ipiniko dira erakusgai, maiatzaren 29etik ekainaren 4era bitartean, ohiko zabalik dagoen ordutegi barruan. Obra edo lan bakoitzak bere gutun-azalean jasota geraraziko den identifikaziorako zenbaki bat eramango du eta izango atxikita Erakusketa aldi osoan zehar.

Maiatzaren 29tik ekainaren 4a bitartean, Kultura Etxeko harrerategian eta egun osoan, zabalik dagoen bitartean, Laudio herriko herritarren botazio faseari ekingo zaio. Horretarako, maiatza hilabetearen amaieran ZUIN aldizkariarekin batera udalerriko etxebizitza guztietako postontzietara banatu diren boto-txartelak erabiliko dira soilik, lehiaketa honetarako eta Haurren Kartel Lehiaketarako balioko dutenak.



Boto-emaileak, boto-txartel hori beteko du bere iritziz lehiaketa irabazi behar duen kartelaren zenbakiarekin, hala jaietako programa nola haurren lehiaketako iragarki-kartela izateko. Harremanetan jartzeko telefonoa ere adieraziko du, lehiaketa honetan bozketa sustatzeko eskainiko diren opariren bat egokitzen bazaio, harekin harremanetan jarri ahal izateko.

**INTERNET BIDEZKO HERRI BOTAZIOA.** Lehen fasean Epaimahai Teknikoak aukeratutako obrak eta lanak, Laudio udaleko internet atarian erakutsiko dira. Obra edo lan bakoitzak bere gutun-azalean jasota geraraziko den identifikaziorako zenbaki bat eramango du eta izango atxikita Erakusketa aldi osoan zehar. Posta elektronikoko bat bidalita bozkatu ahal izango da maiatzaren 29etik ekaineran 4era bitartean, udal web atarian agertuko den estekaren bitartez, adierazi aukeratu duzuen kartelaren zenbakiaz.

Sistema honen bitartez, soilik bozkatu ahal izango dute udalerrian erroldatutako pertsonak eta NAN dutenek, betiere formularioan eskatuko diren baldintzen arabera.

#### 20ª. HERRITARREN BOZKETAREN EMAITZA.

Bozketa prozesua normaltasunez amaitu bada, jasotako botoak zenbatu egingo dituzte Epaimahai-buruak eta Laudio Udaleko Kultura, Kirolak eta Jaiak Arloko Teknikoak, kartel bakoitzak lortutako boto zenbatekoaren proportziozko eran, guztira eta gehienez ere 50 puntu banatuko dute bozkatutako kartelen artean.

Une horretara arte egindako egintza guztiak horretarako idatziko den aktan jasoko dira eta bertan azalduko dira obra edo lan bakoitzak lortu dituen puntuak.

**21.a PUNTU GUZTIAK BATZEA.** Bi aktak eskura dituztenean – eta herritarren bozketari dagozkionak, epaimahaiko presidentek eta Laudio Udaleko Kultura, Kirolak eta Jaiak Arloko teknikariak lanek fase bakoitzean lortu dituzten puntuak zenbatuko dituzte, eta irabazletzat aitortuko dute puntu gehien lortu dituenak. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiko presidentearen kalitatezko botoak ebatziko du.

Une horretara arteko ekimen eta gorabehera guztiak horretarako idatzitako aktan jasoko dira. Aktan lan bakoitzak lortu dituen puntuak gain, lan irabazlearen izenburua, gutun-azaleko zenbakia eta goitizena zehaztuko dira.

**22.a** Behin akta ofiziala idatzi ostean, boto-txartel guztiak deuseztatu eta desegino dira boto-emaileen datu pertsonalen segurtasuna zaindu, babestu eta jagoteko, arlo horretan indarrean dauden legeak eta arauak betez.

Laudio, 2017ko apirilaren 3a